Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Julian Santa Cruz Alzaga
Iurreta, Bizkaia (1914-2011)

Aurkibidea

Biografia

Santa Apolinako Barrenengoa baserrian jaio zen 1914.eko martxoaren 11an eta bertan bizi izan da beti. Andrea Oromiñokoa zuen. 36ko gerra eta ondorenak oso ondo kontatu zituen. Gerra irteterakoan, frontera joan zen "Mungia batailoia"n, hainbat frontetan egion zen: Lekeition, Artxandan, Solluben, Bizkargin... Santoñan preso hartu zuten eta kontzentrazio-eremuetan egon zen, Andaluzia aldetik trintxerak egiten ibili zen. Lantegian ibiltzeaz gain, ez zituen inoiz baserriko lanak baztertu. "Iurreta elizateko euskara eta toponimia" lanerako jasotako grabazioan parte hartu zuen.

Zintak

IUR-014

- **Proiektua**: Iurreta elizateko euskara eta toponimia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto
- **Data**: 1991-01-01
- **Iraupena**: 33 min
- **Euskarria**: Audio Analog

- **Kodifikatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Transkribatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto
- **Emalea**: Errazti Igartua, Alberto

Pasarteak

1. Gerra: frontean eta presoaldia

- **Erref**: IUR-014/004
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:01:55. **Bukatu**: 00:04:15
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
Bere gazte denbora gehiena gerran pasatu zuen. Aurretik basoko lanetan aritzen zen bere aitagaz batera, Asturiasko minetarako apeak egiten. Gerra irteterakoan, frontera joan zen. "Mungia batailoia"n, hainbat frontetan egon zen: Lekeition, Artxandan, Solluben, Bizkargin... Santoñan preso hartu zuten eta kontzentrazio-esparruetan egon zen; Andaluzia aldetik trintxerak egiten ibili zen. Hiru urtez etxera etorri barik egon zen.

Transkripzioa
Gure gaste denporan, gerran denpora geiyena ta, lelego soldadu juen artien, básuen biérrien.
ápeak itten, Ondarruan da, Elgetan da, leku askotan Asturiaseako ápeak itten, míñetarako. Gure aitte defúntuek, erosten sittun, da gero bárkuen biéldu, Ondarruati(k). Gero, ba, gerrak urtenda kittul, frenteti gora, prisioneru eó, iru urtien etxea etorri barik, ba, fréntia lelëgo émen dánien,batalloi(e) formau sánian "batallón Mungia' da orti oiñ juen geñen, lelego seréra, Villálera, ántxe in geñun eotaldi bat, gero andik Lekeittiyora, Lekeittiyoko fréntera, gero andik, e, Sollube be bai, Artxandara be bai, Bixkérgire be bai, krísto gustietara, da gero andik prisionero se(r)a arrapo giñusen gu italiánuak, Santoñan, an eon geñen emenguek asko, Durangokuek, Larrínaga ta, asko, asko Iyorretan bi be bai Tolóetxu ta, Aldekoa, il san bera Demetrio, da asko. Prisioneru jeusi giñen Santoñan da ándik, e, Mirandara, “kanpo-konsentrasiñora”, Mirandatik, e, Saragosara, geo andi barrido Mirándara, da gero ándi Sebíllara, gero ándik trintxerak itte Kordobara, Francontzako, da Kordobatik jun geñén Granádaa, gero Graná(d)atik Málagara. Malagan in (g)iñusen amaika illebete “kanpo de abiasíñu(e)” eitten, amaika illebete jústuen, gero andi barrido etorri geñén Kórdobara, ango trintxeragiñek, eskóltias.

2. Batailak

- **Erref**: IUR-014/006
- **Iraupena**: 0:00:56. **Hasi**: 00:04:26. **Bukatu**: 00:05:22
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Bataila batzuk aipatzen ditu: Elgeta, Sollube eta Artxanda. Gogorrena Sollubekoa izan zela dio. Artxandara Jose Antonio Agirre lehendakaria etorri zitzaien zoriontzen.

Transkripzioa
Batallak itzelak, otia! Elgetan be bai tte, élgetan be go(g)orra eon san, andiyena andiyena eongo san Sollúben seguruti, ni eon nitxen lekuen, Solluben. Gero ándik Artxándara, Josantonio Agírre etorri yakun felísietan, baia es eben abioirik eta, eser da guk esin eser eiñ fúsilekin bakarri. Errékie pasau an lantxetan, subiyek bota abiesan Biibon, da lántxetan pasau bier Deustuti Sorrósara, jo... Iru urte,e! ariñ esate (d)a “treinta y seisien' urten, etxien, da “treinta y nuevian' etxéa. Etxeko kinttue nitzen ni da, justu justu arrapau gérriek, gorriye ta diábrue, sasoi ona al guento!

3. Fronteko armak

- **Erref**: IUR-014/008
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:06:01. **Bukatu**: 00:07:51
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Artilleria zahar bat eta metrailadore txiki bat baino ez zuten frontean. Gernikatik bonbardaketa osteko egunean pasatu ziren. Abioiak Nafarroa aldetik etortzen ziren.

Transkripzioa
Sarrítte éurek, genéal ataketa abien, se éurek eukien abiasiñue eta artilleriye, kristo gustiyek, guk es genken ser bat, artillería sar bat da arnetrallaora txiki batzuk da esebes, árenakiñ ikusitte ésebes, da áren abioiek etorte sienien, ostie!, árek abio baltzak, bónbas kargeuta. Gernika bonbardeau (a)b(i)enien, astelen baten bonbardeau, da gu martixe góxien erretiradie ándik, an iríduek oniño errekan. Au ta Otxandiyo ta, bonbardeau abienien Elgetako fréntien, genéralien Naparroati etorte sien, Naparroako “kanpo de abiasiñoti”, orti, argitte sien. Txakurre pe susteuta eoten sien. Saátia entzute abienien, txakurre pe susteuta.... Siénie jote abien erriyetan sentitze abenien, sirénie jote abìen, jéntie errétietan al da lekuen, baia nun? jente aéntzako es euen séik, dana jo ta aústu itte abien da, gero órrek kasak txikiyok ametrallaóras lurre joten bajatzen sien iós! Fréntian da árek bajátu, gu perris, e, blindeute eusela ta billurtute tietzen isete geñen fusillas. Da gero Málaan prisiónero eon nitxenien “kanpo de abiasiñuen” birritten eon giñun gu, “kanpo de abiasiñue” itten, an ikusten giñesan, “kauen san diós!' Onek biindeuta eusela! sarritten billurras etxúnda pareu ta nok tiretuko tzó ametraliaoras da... sériyuek sien árek, sériyuek!

4. Gerra hasiera; soldadu deituta

- **Erref**: IUR-014/010
- **Iraupena**: 0:01:34. **Hasi**: 00:08:36. **Bukatu**: 00:10:10
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Gerra hasi zenean, Zornotzako jaiak ziren, Karmenak. Bilboko kuartelera agertzeko agindua jaso zuen, eta handik Iruñera joan zen. Mungia batailoiko Santxo Elisegi konpainian sartu zen beste herritar batzuekin batera.

Transkripzioa
Karmen urrego domékia san, Sorróntzako jaiek, “diesiocho de julio” urte abena gerrie(k), oniño iñok es ekiyen eser da, erromeriyen jéntie, beteta Sorróntza ta aläko baten eutobusek:
- ¡Viva la República! ¡Viva el Comunismo!- da estaki ser.
- ¡Ahí va la ostia! Se paseta ok!- enségida sabaldu san:
- Gérriek urten yok!
Tranbiye euen orduen, tranbi(e) sarrak eusen, bete sien tranbie sárrak, bakotxa al da moduen
desaparesiu san Sorrontzatik. Da andik egun bi baño aríñau, abíxua niri kuartelea presentetako soldadu, orduntxe jeusi nitxen ni tte, kuartelera Bilbora. Andik soldadu seera Irúñera. Gero batalloie formau sánien bertako jéntias, nobera pe gurau juetia eseunekin da “batallón Mungia”, nazionalisten batalloiek formau sien da, permísue eskatu naban militarretati da baietz etorteko “Batallon Mungia konpañía Santxo Estegi' otxandiyarrak eta Elorriyo ta onákoxe jéntia, [...] Iurreta aldien be asko, Zamalloa arrapo be bai, geiyenak ildde daus baia, Tolóetxu, Isa be bai, Iyorretati asko, asko baia, Agorria bisi da óniño, Galartza ta asko asko.

5. Gurasoak ebakuatuta; etxea okupatuta

- **Erref**: IUR-014/012
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:10:37. **Bukatu**: 00:11:52
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:
Bere gurasoak ganaduak hartuta Artxandara joan ziren ebakuatuta. Bere anaia Kirikiño batailoiko gidaria zen. Etxera bueltatu zirenean etxea okupatuta aurkitu zuten, bere aitari diru apurrak eta pinudiak kendu zizkieten.

Transkripzioa
Aitte ta ama be ebaku(a)u sien, sartzeko etorri sien Francon ejérsitue ta aráfixkue ta iru bei eró etxien da beste anaiye nerie, ba, txófer juen san Kirikíñora, batallón Kirikiñon txófer eon san. Da aitte ta ama bákarrik, da artu kamioien da erue abiesan leleko sera ei abien Artxandara, ganau aráfixku(e) ta kristo gustíes, da gero ónek arasoetan asi sienien, andi martxau in bier. Artu andik da juen sien sere(r)a Torrelaveara, kóntuek atara!, Torrelaveara kamioien, ia ser dan, etxí(e) abandonauta, Torrelaveara kamioien, gu be fréntien, an be bakarrik, guk es geken etxerik eta es kristorik, etorri sienien áuxe okupauta, beste batzuk, éurek,

koittauek, sute eskíñen parau ta kanpo-jentie etxíen, da tire! tirétu in bier eurrera. Gero martxau abien, aitteri kendu otziesan eukittun diru ondarrok eta piñudiok.

6. Gerraoste gogorra

- **Erref**: IUR-014/014
- **Iraupena**: 0:02:37. **Hasi**: 00:11:58. **Bukatu**: 00:14:35
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:
Aitari pinudiak kendu zizkieten. Itzelak pasa zirela dio. Karlista asko zeuden. Gerraostean ez zegoen ogirik eta errazionamenduan gauza gutxi hartzen zuten. Euskaraz berba egitea ere galarazi zuten: "¡aqui hay que hablar en castellano!". Italiarrak ondo portatu zirela dio, haiek ere derrigortuta etorri ziren.

7. Sollubeko frontean

- **Erref**: IUR-014/015
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:14:35. **Bukatu**: 00:15:45
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Sollubeko fronteko kontuak.

Transkripzioa
Italianuei eiñ utzien sarrásiñue Solluben, ostie!, pena emateko modúen. Arek pentzatu aben Sollube gálduta euela, iñor estauela, da gure batalloi(e) da sosialista batallo(e) bat eon sien goiyen, ta formaute etorri sien árek, seetik, ba, Bemieotik, Bermeotik Sollubera kamiño betian etorri sien. “Fuego” aintxen dabe gure aldetik, goiyen, goiko gánien, áren áiñeketie barrido berantza, ango, ango... Antxe arrapau (g)untzen materiyaletan be, gero Bilbon eon sien eskaparatien an arrapa(r)iko fusíllek eta kristo gustiek [...] baia gero ordu bete baño aríñeu, etorri san bueltia itxosoti, asi sien bárkuek, Francon bárkuek, da antxe ibilli geñén, olako “rompedora(k)” botate abiesan, berrogetamar kaniken moruko serak eskopetak goi goiyen da sabáldu itte abiesan da, laster arrapau da erre iñ abien Sollube, bai bonbakiñ, da bai itxósoti.

8. Lekeitioko frontea

- **Erref**: IUR-014/018
- **Iraupena**: 0:01:44. **Hasi**: 00:16:32. **Bukatu**: 00:18:16
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Lekeitioko frontean, gauetan " escuchan" egon behar izaten zuten. Bertan bizitakoak gogoratzen ditu. Sasoi hartan ere "entxufau" asko zegoela dio, gauza bat esan eta beste bat egin.

Transkripzioa
Lekeittiyoko fréntien, e, suerteu ei san da itzélie ei naben baten. An gabetan “escuchan” eon bieketan bat, fréntie badau or mendiyen, da an barránkuen iño bes, an barrénien eote san “escucha” bat gabien sentieta bosú kontrariyorik. Ta orduen arranakiñ ataketa abien leku askotan, ardiye die morúen. Da klaro! botata txóletak, ba, sera, pótiek eta botata trintxeratik éurrera. Neu antxe, ni tta beste bat "escuchan". Tikilin, takalan, euriye san sano gógor:
- “¡cauen la puta!' Bayatosak ontxe ardiyek arranakiñ!

Tikin tan tikin tan, da emote utz(o)u parte goikoeri:
- Badatosela áiñeketan.

Asten die goiku(ek), ametrallaora txikiyok ta fusillok, da pótiek siela. Klaro! euriye jote abenien gogor árek txóletak saátie itte abien, ardiyen arranen moruen.
Esaie fiyetan, “adémas” gabien an egotie... gero, ba, sasoi ona, sékula gripe ba pes, oiñ beti katarrue ta krístue. Bermion be, kakatza a(r)tien sartute, egon be gabien be ántxe egon bier aíxekiñ.
“Orduen be entxufau asko be egon san, emen Gora Euskadi asko kalíen, da gero gérria etorri sanien, intendentzietan entxufeute, nobera juen erdi billosik iguel da, karlístari tabarduak pas(e)tan igual.

9. Lekeitioko frontetik Bilbo eta Otxandiora

- **Erref**: IUR-014/020
- **Iraupena**: 0:02:55. **Hasi**: 00:19:30. **Bukatu**: 00:22:25
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Lekeitioko frontean zeudela, Bilbora joateko deitu zieten, eta handik Otxandiora joan ziren. Otxandio aurreko egunetan bonbardatu zuten. Oletar asko ere bazeuden euren artean. Otxandiotik Oletara joan ziren eta handik Urkiolamendira. Batailoia berriro osatu behar izan zuten, bajak zirela eta, Lekeitiora joan aurretik.

10. Lekeitiotik ihesi

- **Erref**: IUR-014/021
- **Iraupena**: 0:00:30. **Hasi**: 00:22:25. **Bukatu**: 00:22:55
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Lau batailoi zeuden kostan, eta Francoren aldekoek Trabakutik Iruzubietara nahi zuten pasatu. Han harrapatuz gero, preso hartuko zituzten. Baina eurek alde egin zuten eta Gernikako bonbardaketa osteko egunean pasatu ziren Gernikatik Mundakarako bidean.

Transkripzioa
Orduen be gur(e) abien Francoren serak sartu Trabakutik, Oistik, Iusubietara, estok aitxen, da gu lau batalloi geñén, kostan, órrek eurrie arrapau eskeo, au sarrátu eskero, prisionero jauste geñén an barru(e)n. Da órrek sartu sien ándik, Oistik Trabakure da gu juxtu juxtu justu Gernika bonbardeau da juxtu juxtu astelen bateko bonbardeau da martitxenien pasau Gernikan, errekan ondiñoko jentie ildde ta sue, da ánditxik seréra Mundekara.

11. Batailoian pasatako bizipenak

- **Erref**: IUR-014/022
- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 00:22:55. **Bukatu**: 00:26:15
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Kostan zebiltzan hiru batailoi justu-justu libratu ziren. Beraien konpainiako azkenak Reinosaraino joan ziren, Picos de Europa ingurua zurituta zegoen. Erasoa Palentzia aldetik zetorren. Komunista batzuek Julian harrapatu zuten faxista zelakoan, eta justu-justu libratu ei zen heriotzatik; gertatutakoa kontatzen du.

12. Komunisten batailoia eta abertzaleena

- **Erref**: IUR-014/024
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 00:26:23. **Bukatu**: 00:27:24
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Solluben komunistak ere bazeuden. Gogorrenak eurak zirela dio, EAJ-PNVkoak. Durangon komunisten batailoia zegoen, Malatesta batailoia.

Transkripzioa
Komunistak Solluben be, néskakiñ da énbrakiñ etorri, filarmonikias da frentera “Viva la Virgen” etorri sien, árek arrapate abiena eruen da, néskakiñ dda [...] Gogorrenak émen geu, PNV-kuok, biskeittarrak, sosialista pe baeusan batalleu onak, e, sosialista pe batalleu ona e(g)o san [...] Malatesta ta Durangoko komunista batalloe bat “batallón Malatesta”, órrek “Altos Homos” dinamitteute euki aben botateko, seekue, Sestaokue. Gure

batalloe juen san guardiya itten, ostantzien, dinamittie sartu ta áidien botate dabe.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-27

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com